



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1995eko abenduaren 29a. 27. zenbakia. Dohain banatzen da.

*Erregeek zer
ekarriko zain*

ESKAINTZA
BEREZIAK
ZURETZAT

fotocolor

ERREBELATUA ORDU EAN

Zorionak eta Urte berri on



Kodak
EXPRESS
SERVICIO DE CONTROL DE CALIDAD

JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1 - 59 43 32
20.140 ANDOAIN

1996

Urtarrila

1 2 3 4 5 6 7
8 9 10 11 12 13 14
15 16 17 18 19 20 21
22 23 24 25 26 27 28
29 30 31

Uztaila

1 2 3 4 5 6 7
8 9 10 11 12 13 14
15 16 17 18 19 20 21
22 23 24 25 26 27 28
29 30 31

Otsaila

1 2 3 4
5 6 7 8 9 10 11
12 13 14 15 16 17 18
19 20 21 22 23 24 25
26 27 28 29

Abuztua

1 2 3 4
5 6 7 8 9 10 11
12 13 14 15 16 17 18
19 20 21 22 23 24 25
26 27 28 29 30 31

Martxoa


1 2 3
4 5 6 7 8 9 10
11 12 13 14 15 16 17
18 19 20 21 22 23 24
25 26 27 28 29 30 31

Iraila

1
2 3 4 5 6 7 8
9 10 11 12 13 14 15
16 17 18 19 20 21 22
23 24 25 26 27 28 29 30



BILLABONA



ASTEASU



Aurkibidea

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
"Udaltzain prestuak Andoaingoak" eskutitzari erantzuna.
2. **INKESTA.**
Eta zuk, zer egiten duzu Gabon zahar gauean?
3. **LARRAUL.**
Irazu anaiak.
- 4-5. **ANDOAIN.**
Herri kantak kalera.
Aitor Mendiluze, Gipuzkoako txapeldun.
6. **ASTEASU.**
Txotxongilo ikastaroa.
7. **BILLABONA - AMASA.**
Urteko azken lasterketa.
8. **ZIZURKIL.**
Ostalaritza ikastaroa aurrera doa.
9. **BASERRIA.**
Neguko festen hasiera.
- 10-11. **ERREPORTAIA.**
Jostailuak, haurren pozgarri.
- 12-13. **KIROLA.**
X. Tour-eko lehenengo euskaldunari omenaldia.
Nazioarteko XI. ziklo-kros lasterketa.
14. **ERRETRATU ZAHARRA.**
15. **ZE BERRI? / LEHIAKETA.**
16. **AGENDA.**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31

Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.

Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oiartzabal

Argazkiak: Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro.

Publizitate arduraduna: Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Legogordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614

Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Aiurritarrak



JON UNANUE

Nahikoa saltsa ibili dugu Aiurrin joan den azaroan zutabe honetan bertan argitara emandako "Udaltzain prestuak Andoaingoak" artikulua dela eta ez dela. Jone Larrañagaren artikulua hari emandako erantzuna argitaratzeko orduan ere izan da eztabaidarik, hura argitara emandako leku berdinean erantzuna azaltzea eskatzen baitzitzaigun. Aldizkariaren jarrera zutabe honetan ez argitaratzea izan da, irakurleei gordetako lekuan baizik, eta hala da gaur ere. Eztabaida amaitu eta erantzun horrek bidea hemen izan dezan, Lamberto Oterminek eginitako idatzia gaurko zutabe honetan argitaratzea erabaki dut, nere ardurapean. Inork arrazoirik eskatzen badit, beste batean azalduko ditut. Hau, alabaina, lehenengoz, behingoz eta azkenekoz egiten dudana salbuespena da.

"UDALTZAIN PRESTUAK ANDOAINGOAK" ESKUTITZARI ERANTZUNA

Jakin badakit, ez zaidala erraza izango bufoitzat naukan norbaiti patxadaz eta lasaitasunez erantzutea.

Zaila egiten zait, bai, errespetoz erantzutea eskola gabeko jendeaz farra egiten duen ikasteko aukera guztiak izan dituenari.

Kritika konstruktiboak onargarriak izateaz gain beharrezkoak dira, are gehiago guretzat mesedegarriak.

Jone, zein da zure helburua zure "pataleta" hau idazterakoan?

Badirudi zure bizitza oso erreza izan dela parkeko esperientziak hainbesteko arrasto psikologikoa utzi baldin badizu. Ez al duzu inoiz pentsatu, agian, "dibanera" joan behar izango zenukeela?

Hau esaten dizut zure "pataleta" honetan amorrua eta desprezioa azaltzen dituzulako.

Zuk badakizu lanbide guztietan denetarikoa jendea da-goela, baita zure alorrean ere. Eta kazetarien kodigoan agertzen den arau horietako bat "KONTRASTATZEA DA".

Eta hori non dago?

Jone Larrañaga kazetariari, hau esan nahi diot: benetan kezkatu baldin bazaude, zator niregana, azalduko dizkizut Andoaingo herriari nahi genituzkeen prestazioak eman ahal izateko dauzkagun arazoak.

Horrela, gaia osotasunean ezagutu ondoren, agian, kontrastaturiko artikulua argitara zenezake.

Lamberto Otermin



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntza jaso du.

ETA ZUK, ZER EGITEN DUZU GABON ZAHAR GAUEAN?

Egun gutxi barru Gabon zahar gaua ospatzen izango gara gehientsuenok. Eta gutxi gorabehera gehienok egingo ditugu antzeko gauzak: familian afaldu, eta sasoian daudenak eta gogorik falta ez zaienak kalera irtengo dira, kalez kale, tabernaz taberna musuak banatzera eta barrenak berotzera. Ordu txikiak izaten dira normalean horiek oheratzen

direnerako. Beste askok berriz, giro lasaiagoa bilatu ohi dute, eta kaleko zurrunbiloan nahastu beharrean etxean geratzen dira karta jokoak eta telebista saioak tartekatuz. Inork gutxi egiten du gau berezi-ohiko horretan bestelakorik, lan egiten dutenek edota zer ospatu ez daukatela iruditzen zaienak izan ezik.



RAKEL ETXARRI, **PEDAGOGOIA.** **ANDOAIN.**

Urterokoa..., Gabon zahar gauean etxean afaltzen dut familiarekin eta gero kalera irteten naiz lagunekin. Ez gara kanpora joaten, Andoainean geratzen gara. Gaupasa egiten dugu normalean. Batzuetan aspertu ere egiten gara, baina tira..., lagunak hemen geratzen dira eta.



JOSU ITURZAETA, **IKASLEA. ZIZURKIL.**

Urte zaharreko parranda telebista ikusiz egiten dugu. Goizeko lauak arte egon ohi gara telebistari begira. Horrez gain, lehengusu guztiak elkartzen garenez, elkarrekin jolasean igarotzen dugu gaua. Mahatsak ere jaten ditugu, nahiz eta nahikoa komeria izaten ditugun hamabiak garaiz jateko orduan!



KARLOS COSTA, **IKASLEA. ASTEASU.**

Etxekoekin afaldu ondoren lagunekin elkartu eta Tolosara joaten gara. Bertako tabernetan ibiltzen gara gora eta behera, urte berriaren lehendabiziko eguna argitzen hasi arte. Beraz, urte zaharra eta berria modu berean bukatu eta hasten dugu.



ISIDRO UGALDE, **JUBILATUA. BILLABONA.**

Etxean afaldu eta kartetan jokatzen dugu. Gazteak afaldu eta kalera irteten dira; zaharrak ohera joaten gara zuzuzen. Nahiago nituen garai bateko ospakizunak: afaldu ondoren etxean gelditzen zen familia osoa. Orduan ez zituzten tabernak irekitzen, orain aldiz Gabon gauean ere irekita daude.



XABIER ZABALA, **IKASLEA. ADUNA.**

Aiton-amonekin eta lehengusu guztiekin batera afaltzen dugu etxean. Lehengusu nagusienak ateratzen dira kalera, parrandara, gu aldiz aitonarekin ibiltzen gara kartetan. Musean jokatze-ko ohitura handia dugu nahiz eta telebistako programak ere ikusten ditugun.



MAIDER GOROSTIDI, **IKASLEA. ANDOAIN.**


Familian pasatzen dut Gabon zahar gaua, afaldu eta solasean igarotzen dugu afalondoa. Ez gara tropa handia elkartzen: etxeokak bakarrik bildu ohi gara, kanpoko seniderik ez da gurera etortzen. Ondoren irteten naiz lagunekin kalera.



ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK




Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxa 30 03 45
ANDOAIN



ZUBi
AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL



IRAZU ANAIAK

BERTSOLARI BAT, KORRIKALARI BAT ETA BIDAIARI BAT ETXE BEREAN

Zortzi senideetatik hiru gazteenek burutzen dituzte afizio aipagarrienak. Koldo, hogeita zazpi urteko Irazutarra korrikalari amorratua dugu: zortzigarren postua lortu du aurtengo Behobia-Donostia lasterketan. Karlos berriz, sukaldaria ofizioaz, etorri berri da herrira Bolivian sei hilabete inguru egon ondoren. Jesus Mari da gazteena eta hogeita hiru urte besterik ez baditu ere, Gipuzkoako bertsolari txapelketan bigarren postua lortu du. Azken bi anaiekin egon gara euren afizio eta asmoetaz hizketan.

Jesus Mari Irazu duela bost urte inguru sartu zen bertsolaritza munduan. Tolosako bertso eskolan hasi zen bertsoan eta handik gutxira Hernaniko bertso eskolara joan zen. "Hernaniko bertso eskolan nengoela egin nuen nere lehengo plaza" esan digu Jesus Marik, eta handik bi urtetara irabazi zuen Xenpelar saria izan zen bertsolaritzan serioago hasteko gakoa. Filosofia ikasketak bukatzeko ikasgai bakarra falta zaio eta bertso afariak nahiago dituela onartu digu. Gipuzkoako txapelketan bigarren postua lortzea kasualitatea izan dela esan digu: "Ez dut nere burua Sorozabal edo Muruaren aurretik ikusten". Txapelketak, bertsolari gazteak ezagutarazteko balio izan duela gaineratu digu. Bukatzeko, bertsolari elkarteko bazkide egitera gonbidatzen du jendea Jesus Marik eta bertsolaritza bezalako egitasmo kulturala bultzatzeko sustengua behar dutela azaldu digu.

BOLIVIAN LANEAN

"Hilabete baterako joan nintzen hasieran eta sei igarota etorri naiz azkenean" esan digu Karlosek eta haurtzandegi bateko gurasoei janaria prestatzeko moduak erakusten ari-

tu da denboraldi horretan. Bertakoak egoera larrian bizi direla esan digu Karlosek eta asko edaten dutela gaineratu digu, "penak ahaztu nahian edo". "Arazorik larriena bertako biztanleen ekimen falta da" azaldu digu Irazutarrak eta egoera aldatzeko eragile bakarrak direla gogorarazi digu, nahiz eta kanpotarren laguntza ere beharrezkoa izan. Azkenik, zer asmo dituen galdetzean oso argi ez duela erantzun digu. "Masaia ikastaroren bat egingo nuke, margotzea ere atsegin dut baina behar bada, Bolivian ateratako argazkiak bildu eta antolatzeari ekingo diot" erantzun digu Karlosek, beste bidaiari bat egiteko aukera aurreragoko utziz.



Jesus Mari eta Karlos Irazu



HOL - ATZ




VACSOL - WITRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Elbarrena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA



ogi berezi eta
antesauak
...
etxerainoko
zerbitzua

OGI ZURI OKINDEGIA, S.L.
Lizarte-etxea, 32 / Elizmendi auzoa
20159 ASTEASU / ☎ 693294 - 691896

OGI · GOXO



- TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
- TEILAK-ZIGARRILOAK
- HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

PATXINE JATETXEA



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXKO POSTREAK
Errementari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



GOSARIAK - APERITIBOAK BILARRA

GIRO EDERRA!!

KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN



HERRI KANTAK KALERA

BI TALDE ARITU ZIREN KANTUAN

Bi helburu izan ditu Kultur batzordeak euskal kantu tradizio emanaldiak antolatzeko orduan: kanturako zaletasuna daukaten taldeak zuzpertz eta kalean giroa sortu. Joan den larunbatean neska-mutil gaztez osatutako bi talde besterik ez ziren azkenean kalez kale herri kantak eta Gabon kantak abesten aritu, nahiz eta hasiera batean sei taldek eman zuten izena.



Txantxangorri taldea

DULTZAINARIAK: Zazpi urte baditu dagoeneko Andoaingo dultzainari eskolak zortzi lagunez osatuta. Joan den larunbatean bi taldetan banatuta atera ziren kalera. Xabier Urdangarinek azaldu digunez, gero eta harrera hobea egiten zaio dultzainari kalean, nahiz eta aitortu digun kalean jotzea gero eta zailagoa dela: jendeak ez omen du dantzatzen eta gainera, tabernako musikak egiten omen die konpetentzia. Herri kantak zuzpertzeko honako hau ez omen da hasiera txarra izan, hala ere jarraipena izan beharko lukeela uste du.

TXANTXANGORRI: Musika eskolako orkestrako kideek osatu dute taldea. Musika munduan arituak dira beraz, eta jende aurrean ere ibiliak dira, nahiz eta kantatzen baino gehiago, musika jotzen ohituagoak daudela esan diguten. Normalean eskaini ohi dituzten kontzertuetara jende asko ez omen zaie hurbiltzen. Orain honetan ordea, herritar ugari izan dituzte inguruan. Jasotako dirurarekin zer egin behar duten galdetu diegunean, Galiziarako bidaia bat buruan darabilte aitortu digute. Bero jondaizuela!

LIBURUTEGIAN DOKUMENTAZIO LANA EGITEKO BEKA DEIALDIA

Udal liburutegiak 1995. urtean liburu fondoaren informatizazioari ekin dio. Informatizazio lana egin bitartean katalogazio eta dokumentazio ikasketak egin edo egiten ari diren ikasleei zuzenduriko beka deialdia luzatzen du orain Kultura batzordeak.

Lehiakideen artean herritarrek izango dute lehentasuna. Bekadunak sei

hilabetetan katalogatu beharko ditu liburuak. Bekaren zenbatekoa 300.000 pezetakoa izango da.

Baldintza orokorrak: 18 urtetik gorakoa izatea; katalogazio eta dokumentazio ikasketak egiten edo eginda izatea; oinarizko euskara maila izatea. Eskatzaileak *curriculum vitae* abenduaren 26tik urtarilaren 5era Kultur Etxean.

LEONERA "TXOKOLATERARI" BURUZ HITZ EGITERA

TALDE ANDOINDARRA POZIK ETA BAIKOR DAGO

Herri mailan urtebete lan egin ondoren, orain dela hilabete pasatxo joan ziren Iñaki Otamendi, Andoni Etxezarreta eta Xabier Arruti Leonera, bertako agintariekin Tren Txikiko 31 lokomotoraz hitz egitera eta ikustera. Orain arte egindako lana erakustea, hango asmoak ezagutzeta eta elkarrizketa bidea irekitzea ziren andoaindarren helburuak, eta bete ere, bete dituztela adierazi digu Otamendik.

Kostata lortu zuten Castilla-Leongo Juntako agintariekin elkarrizketa. Azkenean beraiekin eta Ponferradako alkatearekin hitz egitea ere lortu zuten. Oso ondo hartu zituzten eta akordioetara iristeko itzaropentsu itzuli dira. Aldi baterako Azpeitiko Tren Museora ekartzeko aukera aipatu digu Otamendik, edota Azpeitin dagoen konpoketa tailerrera lokomotora konpontzeko ekartzea. Gaztelako agintariek bestalde, argi utzi dute lokomotora ez dutela saldu nahi.

LEONEN ERE ESTIMA HANDITAN

Ponferradan batez ere, 31-rekiko sentsibilizazio handia dagoela ikusi dute gainera andoaindarrek, eta *Amigos del Ferrocarril del Bierzo* izeneko taldearen ekimenez han ere tren museo bat egin nahi dutela, Tren Txikikoa lokomotorarik preziatuenetako bat izanik. Andoaindarrek bazeukaten joan aurretik horren berri, horregatik joan dira errespetuzko jarrera irekiaz.

Ponferradako agintarien esanetan, museoko asmoak zehaztu ondoren izango da edozein elkarrizketarako une egokia. Eta orduan beste pisuzko erakunde batzuek izango dute hitza. Hala ere, andoaindarrek momentuz lanean jarraitzeko asmoa daukate, inguruko beste herrietan beren ekimena zabalduz eta Leongo agintariekin harreman zuzenak izaten jarraituz.

Bukatzeko talde andoaindarrek Tren Txikiren irudiak biltzen dituen egutegia herrian salgai jarri duela adierazi digu Iñaki Otamendik.



AITOR MENDILUZE, GIPUZKOAKO TXAPELDUNA

TXAPELKETA OSOAN ZEHAR ERAKUTSI DUEN MAILA ALTUA IZAN DA, ZIUR
ASKI, TXAPELA EMAN DIONA

Donostiako Gaska kiroldegian ospatu zen Gipuzkoako bertso txapelketan Aitor Mendiluze gazte andoaindarra izan zen garaile. Finalisten artean ordea, ez zen beterritar bakarra; Jokin Soroza-bal andoaindarra eta Jexux Mari Irazu larrauldarra ere lehia berean elkartu ziren, lehenengoak zazpigarren lekua eta larrauldarrak bigarrena lortuz. Gazteak asko ziren taldean, eta guztietan gazteenak, 20 urteko andoaindarrak, jantzi zuen txapela. Aitorrek adierazi digun bezala, gazteen emaitza onak argi adierazi dute Euskal Herriko bertsolari gazteen heldutasuna eta maila ona.



Arg: Jagoba Manterola.
Egunkaria



Manuel Lasartek jarri zion txapela

- Txapelak ezustean hartu al zaitu?

- Egia esan behar baldin badut, bai.

- Hala ere, bertsolari aditu askok esaten zuen saio aurretik irabazteko aukera handia zeneukala?

- Bai, hala da, baina hala ere, azken sailkapenak ere hasieran harritu egin ninduen. Final zabala izango zela pentsatzen nuen. Ez nuen uste nik aukera berezirik izango nuenik. Bestalde, askok eta askok jotzen zuten Sorozabal faboritotzat.

- Nola ikusi duzu zeure burua txapelketan zehar?

- Nabikoa erregularra izan naizela uste dut. Txapelketa osoan ez dut bertso txar-txarrik bota. Nik uste baino bertso txar gutxiago bota ditut. Hala ere, kartzelako gaian trakets samar ibili nintzen, eta horregatik ez nuen irabaztea espero.

- Bertso motz onenari ematen zaion saria ere zuretzako izan da?

- Bai, gustoko dut bertso motza, nahiz eta zailagoa den. Hala ere ez zait bertso mota bakarra lantzea gustatzen, jendeak bestela sailkatu egiten zaitu.

- Hernaniko eskolako zazpi bertsolari iritsi zarete finalera?

- Bai, gazteek talde sendoa osatu dugu Hernanin. Elkarrekin arituz praktikatzeko ere aukera handia daukagu.

- Nola prestatzen du bere burua bertsolariak?

- Etengabe kantuan aritzea oso garrantzitsua da. Baina horrezaz gain, bakarkako lana ere egin beharra dago: errimak landu, bertso zabar eta berri asko irakurri eta egungo gertaeren berri izateko informatuta egon.

**“MANUEL LASARTEK
TXAPELA JANTZI
ZIDANEAN HUNKITU
EGIN NINTZEN”**

- Zer da zuretzat bertsolaritza?

- Gauza asko aldi berean: berriak emateko modu bat izan daiteke. Joku bat ere bada, eta askotan joku bat baino gehiago.

- Ba al duzu guztien artean gogoken duzun bertsolaririk?

- Guztiak ditut gogoko, guztiengandik ikasi baitut zerbait. Hala ere, aitortu beharra daukat txapelketan Manuel Lasartek txapela eman izanak asko hunkitu ninduela, txikitatik izan baitut oso gogoko.

- Nora iritsi nabiko zenuke bertsolaritzan?

- Ez nuke urtean saio asko-asko izatera iritsi. Tarteka-tarteka saioak izatea gustatuko litzaidake, hala ere. Jendearekiko barremana gustatzen zait, eta bertsolariak beharrezko du gainera.

- Hemendik aurrera saio gehiago izango dituzu...

- Hilabete batzuetako bolada izan obi da hala ere hori, eta gainera ez da nabikoa txapelduna izatea; aurrerantzean saio onak egiten jarraitu beharra dago. Utopiaren arloan sartzen bagara, bertsolaritza ikuskizun hutsa baino gehiago izatea nabiko nuke, entzuleak bertsoak hobeto ezagutzea eta bertsolaritzak herri honetan merezi duen lekua izatea.

- Gaur egungo bertso zaletasunari buruz zer diozu?

- Orain dela urte batzuetako boom-a gehiegizkoa izan zen. Bertsoak jende askorengana iristea lortu zen, telebistaren bitartez batez ere, baina horrek bertsolaritza nora eramán dezakeen ere neurtu beharra dago.

Aitor Mendiluze ingeniariaritzari ari da ikasten. Bederatzi urtekin hasi zen bertsotan, Hernanin lehenengo eta Andoainen ondoren. Gaur egun bi eskoletan aritzen da erakusten. Gipuzkoako txapelak ezustean hartu duen gazte andoaindarra, artean komunikabideek eskaini dioten arretaz harritu samarra zegoen final biharamunean. Guztiei eskerreak emanez agurtu zaigu. Guk gure aldetik, bi urte barru izango den Euskadiko txapelketarako zortea besterik ez diogu opa.



TXOTXONGILO IKASTAROA

EDURNE ETXEBERRIA: "PANPINA NOLA ERABILI ERAKUSTEN SAIATU NAIZ"

Azaroan hasi eta Gabonetarako bukatu dute sei eta hamaika urte bitarteko hamasei haurrek txotxongilo ikastaroa. Edurne Etxeberria donostiarrak erakutsi die haurrei panpina egiten eta ondoren, txotxongi-loarekin antzerkia egiten. Antzezlanak eta guzti egin dute.

Larramendi Kultur Bazkunak antolatu zuen ikastaroa eta Udalaren laguntzaz burutu da. Edurne Etxeberria irakasleak esan digunez, zailena adin ezberdineko haurrek lan erritmo berean aritzea izan da. "Beste irakasle batekin batera edota herri bertako pertsona batekin irakas-tea da egokiena" esan digu Edurnek, aurrekontuak horretarako nahikoa ez zela gaineratuz. Bestalde, Edurnen

esanetan, jende gutxi dago txotxongiloak egiten eta erabiltzen dakiena, eta are gutxiago irakasten duena.

ANTZEZLANA PRESTATZE LANETAN

Lehenik eta behin haur bakoitzak bere panpina egin du. Horretarako kortxozko bola zuria, oihala, margoak, paparezko pasta eta antzeko materiala erabili dute. "Haur batek eskimal bat egin du, beste batek martziano bat eta abar. Behin panpinak bukatuta, antzezlanak prestatzeari ekin diogu" esan digu Edurnek, ikastaroaren helburua panpinak egitea eta ondoren antzerkia egitea izan dela gaineratuz.

LAPURRETAK UDALETXEAN

HIRU ALDIZ SARTU DIRA AURTEN

Abenduaren hamaikatik hamabirako gauean udaletxera sartu ziren lapurrak. Dirua eramateaz gain hondamen ugari egin zituzten udaletxeko ateetan eta zerrailetan. Lapurreta honekin hiru dira aurten egindakoak eta Udalak neurriak hartuko ditu lapurreta gehiago egin ez daitezen.

Maiatzan ere sartu ziren eta gauza ugari lapurtu zituzten orduan. Irailean ordea, bigarren aldiz sartu zirenean, ezer gutxi eraman zuten. Oraingoan berriz, egin dituzten kalteak izan dira lapurreta bera baino handiagoak.

Badirudi udaletxearen atzealdean dagoen Kultur Etxeko atea bortxatuz sartu zirela lapurrak eta behin barruan zirela, beste bost ate derrigortu zituzten. Horretarako balanketa bat erabili omen zuten, ateetako markuak eta zerrailak hondatuz. Udaletxe barruan derrigortutako atean, komuna bateko atea, liburutegiko bi ate, udaletxeko bulegoen sarrerako atea eta gizarte laguntzailearen bulegoko atea daude. Liburutegitik eta gizarte laguntzailearen bulegotik dirua lapurtu zuten, horrekin batera beste zenbait gauza ere eramanez. Bestalde, posta jasotzen den buzoian zulo handi bat egin zuten.



Antzerkia egin dute panpinen laguntzaz

SAHATSA

BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONSULTA NATURISTA

Termin kalea, 16 - ☎ 69 28 83 - BILLABONA

MILIKOST

LIBURUDENDA
PAPERDENDA

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57 -
ANDOAIN




URTEKO AZKEN LASTERKETA

JON LIZARRIBAR: "LASTERKETA HERRIKOIA EGITEN DUGU"

Abenduaren azken egunean afariak eta parrandak egiteaz gain korrika saioak ere egiten dituenik bada. Duela hamabi urte hasi ziren Billabonako Zunbeltz elkarte eta Zizurkilgo Urkamendi elkarte San Silvestre eguneko lasterketa antolatzen. Aurtengoan Urkamendin hasi eta bukatuko da sei kilometroko lasterketa.

Zunbeltz elkarteko Jon Lizarribarrekin bildu gara eta bere esanetan, jaietan antolatzen duten lasterketaren ondorioz hasi ziren San Silvestreko krosa antolatzen. Zizur-



Lasterketaren ibilbidea

kilgo Urkamendi elkartearekin batera antolatzen dute lasterketa eta urtero aldatzen dute lasterketaren hasiera eta amaiera herria. Hala ere, lasterketaren ibilbidearen zatirik garantzitsuena Billabonatik igarotzen da. "Aurten ibilbide berri bat egin dugu, trafiko arazoak ekidin nahian" esan digu Jonek, korrika lasai ibiltzeko neurria dela argituz.


SARIAK: LAGUNARTEKO AFARIAK

Lasterketa nagusia sei kilometrokoa da eta ibilbideari lau bira eman behar zaizkio. Saio horretan hamalau urtez gorakoek hartzen dute parte eta helmugara lehenengo postuan iristen diren gizonezkoari eta emakumezkoari ematen diote trofeoa. Haurrek berriz, hiru bira ematen diote ibilbideari, hiru kilometroko lasterketa eginez. Azken hauei ez zaie trofeorik ematen, baina bukatu dutenen artean opariak zozketatzen dituzte. Helduen artean ere gauza bera egiten dutela esan digu Jonek: "Urtarrilean elkartean egiten dugun afarirako hamabost txartel zozketatzen dira. Oso giro ona egoten da afarian". Berrehun eta berrogeita hamar partaide inguruk hartzen dute parte urtero eta Jonen esanetan, "ez da profesionalen lasterketa; krosaren aitzakiarekin korrika saio bat egin nahi dutenek hartzen dute parte". Beraz, oraindik ere garaiz zaudete San Silvestre eguneko lasterketan parte hartzeko.

SENIDEAK-EN MOZIOA ONARTU ZUTEN

Udalbatzak aho batez onartu zuen Senideak taldeak aurkeztutako mozioa. Presoak Euskal Herrira ekartzea eta presoek giza eskubideak errespetatzea eskatzen zuen agiriak. Herriko talde eta erakunde ugari sinatu zuten aipaturiko mozioa.

Herritar askok mozioa sinatzea izan zen, beste arrazoi batzuen artean, EAJ-PNV alderdiak mozioari baietzkoa emateko arrazoietako bat alderdiko zinegotziek azaldu zutenez. Bestalde, EAJ-PNV zein Bidean alderdiek Itsasondoko gertakizuna eta Madrilgo atentatua gogor salatu zituzten. HBk berriz, onartutako mozioa praktikara eramateko konpromezua hartu zuen. Udal batzarrean bildu ziren herritarrek, EAJ-PNV zein Bidean zoriendu zituzten, beren esanetan lehen dispersioa bultzatzen zutelako eta orain berriz, gaitzetsi egiten dutelako.



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutzaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

J. Antonio URBIETA

- Garratxoak: 16m. grua
- Urte osoan su egurra
- Beñe garaian lastoa eta belarra

Kale Nagusia, 4 - 2. ASTEASU
Tel. 69 30 92 - 69 26 76

Billabona-Amasa



Herriz herri

Zizurkil

OSTALARITZA IKASTAROA AURRERA DOA

EMAKUMEAK LAN MUNDURA SARTZEA DU HELBURU

Zizurkilen sortu zen emakumeak lan mundura sartzeko ikastaro bat antolatzeko ideia. Ondoren Tolosaldeko Heziketa eta Enplegu batzordeak ideia hartu eta ostalaritza ikastaroa antolatu zuen eskualde gutziko herritarrentzat. Aurkeztu ziren ehun lagunetatik hamaseik izan dute ikastaroan parte hartzeko aukera eta horietako bat gizonetako da. Abenduan hasi eta apirilean bukatuko da sukaldari eta zerbitzari lanak irakasteaz gain, enpresa txiki bat gestionatzeko modua eta lan munduaren nondik norakoak erakusten dituen ikastaroa.

Hasieran ikastaroko partaideak hamabost emakume izatea nahi zuten; horietatik zortzi zizurkildarrak, gainera. Tolosaldeko Heziketa eta Enplegu batzordeak ordea, emakumeek ikastaroa egiteko lehentasuna izatea eta zortzi partaide Ernio Behekoak izatea erabaki zuen. Gauzak honela, hamabost emakume daude ikastaroan, aukeratu duten gizon bakarrarekin batera.

Abenduaren lehenean hasi zen ikastaroa eta Egu-berrietarako bukatu dute lehen atala. Lan mundura sartzeko prestaketa psikologikoa lantzen aritu dira, ostalaritzako klase teorikoak jasotzeaz gain. Ikastaroaren bigarren atalean berriz, urtarilean hasi eta apirilaren hasieran bukatuko dena,

sukaldari eta zerbitzari izateko ikasi beharrekoak ikasiko dituzte. Tolosako Perot ikastetxean emango da ikastaroaren bigarren atala. Apirilean zehar berriz, ikastaroaren azkeneko atalean, enpresa bat nola gestionatu, antolatu e.a. landuko dituzte. Lan mundura sartzeko baliabideak emango zaizkie ikastaroaren amaieran.

ETORKIZUNA DUEN IKASTAROA

Jatetxeek edota ostalaritzako hainbat enpresek denboraldi baterako eskulana behar izaten dute, eta askotan ez dago eskulan kualifikaturik lan



Kultur Etxean egiten ari dira ikastaroa

hori egiteko. Beraz, ikastaroak duen helburua emakumeek beraiek sortuko duten enpresa txiki bat bultzatzea da. Enpresak jatetxeek, eskoletako jantokiek edota dena delakoek behar duten eskulan kualifikatua eskainiko luke. Hala ere, emakumeek aztertu behar duten aukera da hori.

TAXI ZERBITZUA

Duela gutxi jarri dute taxi zerbitzua herrian eta herritar guztientzat izateaz gain, elbarrientzat dago egokituta. Hori da zerbitzu horren berezitasuna eta Joseba Arregi plazaren albo batean dauka geltokia. Zerbitzua erabili nahi izanez gero deitu bertako gidaria den Pello Ezeizari 690823 telefonora edota 908-575900 telefono mugikorrera.

TAXI ZIZURKIL



• TAXI zerbitzu orokorra

• Ezindu fisikoentzat ere moldatua

Pello Ezeiza

Tel. 69 08 23 – Tel. Ibilkorra - 908 - 57 59 00

TRANBURU agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 behea
59 08 14
ANDOAIN

winterthur

NEGUKO FESTEN HASIERA

ERNIO BEHETIK SANTA LUTZI ETA SANTO TOMAS FERIETARA

Alkiza, Aduna, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo hainbat eta hainbat adineko baserritar eta kaletar bisitatu dituzte Zumarraga-Urretxuko Santa Lutzitako eta Donostiako Santo Tomas feriak azkenengo egun hauetan. Autobusa bete herritar bertaratu ziren eta kontatu digutenez egunpasa bikaina egin zuten.



Zumarragan Santa Lutzitako ferian


Bi urte badira egun horietan ibilaldia antolatu eta ferietara joaten direla. Feria bakoitzak bere berezitasunak izaten ditu, eta Zumarragan ganadu erakusketa izan ohi da erakargarririk handiena. Bestalde, bertan ezartzen dira neguko fruituak, barazkiak, oilaskoak, kapoiak eta baserriko garaiko gaiek izango dituzten prezioak, eta hango gora-beherak ezagutzea ere gustatzen omen zaie. Donostiako Santo Tomasetan berriz, txoixo dastaketaz gain, bertako giro paregabeak erakartzen omen ditu.

Lehendik ere asko dira Ernio aldetik feria batera zein bestera joan izan direnak. Jubilatutako aurretik ordea, etxeko eginkizunak nahikoa eta gehiegi izaten zituzten askotan, eta 45 urte ere bertara joan gabe egon direnak itzuli dira azkenengo bi urteotan Ernio Beheko Ongizate Zerbitzuak eskaini dien aukerari esker.

ADUNAKO IÑAKI GOROSTIDI MINIATURAN LANDUTAKO HARRIAK

Bisitariak ezezik, artisautza erakusketara bildu zen Beterriko beste lagunik ere ikusi genuen Zumarragan. Adunako Apakintza baserriko Iñaki Gorostidi azkenengo hiru urteotan joan da feriarantz miniaturan landutako harriak erakustera eta saltzera.

Hamazazpi urtekin hasi zen Iñaki Gorostidi harrijasotzen apostu bat zela medio. Geroztik eta orain dela urte gutxi arte beste apostu eta saio batzuetan hartu du parte, boxeo lehiaketekin tartekatuz. Harrijasotzen zebilela ere, bazeukan harriak miniaturan egiteko ideia, eta orain dela urte batzuk hasi zen lanean. Bergarako eta Markinako kareharriz eta granitoz egiten ditu benetako harrien itxura bera daukaten zentimetro batzuetako era guztietako harriak. Iña-



Era guztietako harriak egiten ditu.

kik ferietaz gain, artisautza erakusketara ere joaten da bere bitxikeriak erakustera. "Jendeari harriak aurrenekoz ikusten dituen oso bitxiak iruditatu ohi zaizkio, eta normalean opa-

riak egiteko eta, erosten ditu", esan digu Iñakik. Gaur egun berriz, asmo berriak dauzka eta bere iharduera profesionalizatu eta beste urrats bat emateko gogoia dauka.

JOSTAILUAK, HAURREN POZGARRI

OLENTZERO ETXEAN ETA ERREGEAK AITON-AMONENEAN

Gaur egungo hurrek garai batekoak baino zorte hobeak daukate gero, Olentzerok ekarritako opariak jasotzen dituzte lehenengo etxean, eta Errege egunean berriz, aiton-amonen edota osaba-izeben etxean. Honez gero Olentzero etorritako bidetik joana da hurrengo urtera arte, baina oraindik Erregeek zer ekarriko duten zain daude neska-mutil gehienak. Aspaldi idatzi zituzten etxeok txikienek gutunak eskolan. Esan bai, bi opari eskatuta nahikoa dutela esan zieten irakasleek,

baina haurrak, horretan ez dira helduengandik gehiegi ezberdintzen: zenbat eta gehiago eskatu, gehiago jasoko duten itxaropena gordetzen baitute barruan. Ez da izango ez, gaur egungo hurrek esku artean jostailu gutxi darabiltelako. Gurasoek beraiek aitortu digute, gela bete traste izan ohi dutela, baina, antza, Gabon egunak iritsita, haurren gogoak ahalik eta hobekien betetzen saiatzen dira, umetako inozentzia eta ilusioa gutxitan luzetzen baita haurtzarotik aurrera.

Zizurkilgo Irati, Beñat, Xabat, Ioritz eta Ibairekin elkartu gara Olentzerok eta Erregeek ekarri ohi dizkieten opariei buruz hitz egiteko. Nahasmen pixka bat ere badaukate pertsonaia horien jatorriaz eta nondik-norakoaz, baina azkenean, edozein eratako buruhausteri muzin egitea nahiago dutela iruditzen zaigu. Olentzero, zalantzarik ez, euskalduna da, eta Erriotik behera jaisten da opariak ekartzera, oinez edo traktorean banatu ohi ditu inguruko haurren artean opariak. Erregeak, Amasatik datoze-lakoan daude, hala ere, eta gutunak euskaraz idatzi arren, euskaldunak ez diren susmoa daukate. Euskal Herriaz kanpo berriz, *Papa Noel* ardura-


tzen da Frantziako haurretaz, eta hortik kanpokoak, auskalo!

Xehetasun horiek guztiak alde batera utziz, benetan gaiaren mamiaz hitz egiteko gogoz zeuden bostak, hau da, ze eskari egin dituzten kontatzeko irrikaz zeuden denak: panpinarentzat aulkia eta bainera, Legoa, patinak, "El Rey León" bideoa, motorra, patinak, bizikleta eta beste hainbeste izan dira guk hemen jasotako eskariak. Jakin, ongi baino hobeto dakite eskatutako guztia ez dutela jasoko, baina... Hori bai, deskuiduan ere mutiko hauei ez zaie "nesken jostailurik" eskatzea bururatuko: ez panpinik, ez sukalderik, ez etxerako tresneriarik..., aspergarriak eta gezurrezkoak omen dira.

Jostailuak jaso orduko opariak lehengusu eta ingurukoei erakustea dute gogoko. Eskolara lehenengo egunetan eramatera ez dira ausartzen, berri-berriak daudela eta hondatuko dituzten beldur. Gabon egunak igaro eta handik aste batzuetara eramango dituzte eskolara, lagunekin jolasteko.


GURASOAK

Gurasoen lehenengo kezka seme-alaben nahia eta etxeok aurrekontua egokitzea izan ohi da, hala ere, nola edo hala beti moldatzen dira haurren gogoak bete-



tzeko. Aukeratzeko orduan hurrek telebista daukate informazio iturri nagusi eta bakarra, eta gurasoek horri jarraitzen diote.

Eskolan kontatu digutenez sei urtekin hasi ohi dira Olentzerori eta Erregeei buruzko zurrumurru maltzurak zabaltzen, hala ere xarmak eta ilusioak luzeago irauten du, esamesei jaramon handirik egin gabe. Halakoetan hurrek euren ideiarekin bat ez datorren ezer sinesteari uko egiten diote. Alabaina, lagunak esandakoa sinestea erabaki ondoren ere, ez jakinaren itxura egiten jarraitzen dute gehienetan, opariak murriztuko diren beldur.



JOSTAILUAK EROSTEKO IRIZPIDE BATZUK

Askagintza elkarteak urtero egiten du Gabon egunetan Andoainen jostailuen inguruan hainbat argibide ematen saiatzen den kanpaina. Mikel Goenagak eman digu kanpainaren berri.



Jostailuak bezitzeko ere badira

- Zer dela eta kanpaina?

- Haurren eta jostailuen inguruan garai bonetan jakina da interes ekonomiko asko izaten direla, haurra erosle potentziala bihurtzen baita. Bestalde, gurasoek jostailuak ia irizpiderik gabe aukeratzten dituztela konturatzen gara. Telebista izan obi da irizpide bakarra.

- Zer da jostailua?

- Jostailuaz gain, jolasa bera berritu behar da kontuan. Jolasaren bitartez haurrek berezko mundu berezia eraikitzen dute, irudimenaren eta helduen munduaren artean. Poliki-poliki jolasaren bitartez mundu erreala irudimenezko mundua ordezkaturiko du.

- Gaur egun nola egiten da jolas?

- Jolasa pribatizatu egin da: etxean jolasten da gebienbat, eta haurrek euren artean ez dituzte jolasak horrenbeste elkartrukutzen. Bestalde, jolasa, tresnetara, hau da jostailuetara mugatu da gebienbat,

kirola eta ibilaldiak adibidez murriztuz. Ipar Amerikako gizartearen eredia jarraitzen ari gara: garai batean ipar amerikarrak hona etortzen zirenean harritu egiten ziren gure haurrak kalean

bakarrrik jolasten ikustean. Han, mesfidantzaz eta beldurrez, haurrek etxeko zokoan jolastu obi dute gebienbat. Ondorioz, haurrak gizenagoak dira nabarmen.

- Jostailuak erostean gurasoek ze irizpide hartu behar dituzte kontuan?

- Jostailuek lagunen parte hartzea eragin behar dute, ez dute sexistak izan behar, sormena lantzerantz bideratuta egon behar dute, ez dute guda jostailuak izan behar, ez dute haurren artean konkurrentzia eragin behar, eta azkenik, jostailu seguruak izan behar dute.

- Bukatzeko, aitortu diezaguzu zure jostailurik gogokoena zeintzuk ziren?

- Gure garaian ez zegoen telebistarik. Burubauste jolasak izan obi ziren obiko jostailua, baita musika tresna txikiren bat ere. Bizikleta berriz, luxuzko oparia zen. Guk kalean jolastu obi genuen asko: dianaz lurra zulatzen ibili obi ginen edo tiragomaz txoriak harripatzen.

HONA HEMEN ASKAGINTZAK BIDERATUTAKO "JOSTAILU EGOKIA" IZENEN KANPAINAN ZEHAZTUTAKO HAINBAT AHOLKU PRAKTIKO:

1 Jostailua hezkuntza estetiko-rako elementua da. Hori dela eta, kolorea, irudia, diseinua eta abar hartu behar dira kontuan.

2 Sendoa, hauskaitz eta konpongarri izango da.

3 Dibertigarria izateaz gain, haurren interesa iraunarazi behar du.

4 Umearen adin eta garapen mailari egokitu behar zaio.

5 Mutikoen jostailuak ez dira neskatuenak ez bezalakoak; jolasteko jostailuak besterik ez dago.

6 Barietatea garrantzitsua da, ez jostailu ugaritasuna.

7 Urtean zehar tartekatu behar da jostailu erosketak.

8 Guda jostailurik erostea ez da komeni.

ANDOAIN

NAZIOARTEKO XI. ZIKLO-KROS LASTERKETA

STEVENSON INGELESA GARAILE; ANDOAINGO ESKOLAKO AITZOL ZURRIARAIN NABARMEN

Andoaingo Txirrindulari Eskolak antolatutako nazioarteko ziklo-kros lasterketak inoiz baino jende gehiago biltzea lortu du aurten. Txirrindularitzako izar ugari izan ziren Gipuzkoan aurten nazioarteko lasterketa bakarra izan den honetan. Munduko txapel-dun anoetarra, Abraham Olano izan zen antolatzaileek kostata Andoainera ekartzea lortu zuten izarraetako bat. Zailtasunak handiak izan ziren hasieran, baina azkenean emaitzak bikainak izan dira. Emaitzei dagokienez, Stevenson ingelesak lortu zuen garaipena, hala ere zenbait txirrindulari euskaldunen saio bikaina azpimarratu beharra dago, Andoaingo eskolako Aitzol Zurriarainena, besteak beste.

Lasterketa antolatzen hasi zirenean eskolak izan zituen bere zalantzak: diru arazoak ez baitira izaten erraz konpon-tzeko modukoak. Azkenean, jende askok agertu zuen ordea, lasterketari jarraipena emateko interesa, eta antolatzaileek Andoaingo Udalaren laguntzaz beste behin lasterketari aurrera egitea lortu dute.

AITZOL ZURRIARAIN

Hamairugarren sailkapen orokorrean eta hirugarren Gipuzkoako txapelketan. Lasartearra; 20 urte; langilea


- Noiztik Andoaingo eskolan?

- Lau urtez geroztik. Donostian aritzen nintzen lehen, baina Andoaingo eskolaren berri izan nuen eta etortzea erabaki nuen. Ziklo-krosean aritzen den eskolarik aurkitzea ez da erraza.

- Nolatan ziklo-krosa?

- Errepidean ere ibili izan naiz, baina neguan ez nuen geldia egon nahi eta ziklo-krosa egiten hasi nintzen. Aurrerantzean ez dakit errepidean jarraituko dudan. Mendiko txirrinduan hasteko asmoa daukat, ziklo-kros lasterketa asko ere ez daude eta.

- Andoaingo azkenengo saioa zer iruditu zai-zu?



- Ibilbidea ezin hobea, eta eguraldia primerakoa. Lasterketa azkarra izan zen.

- Atzerritarrak zer moduz ibili dira?

- Kanpoan atzerritarrak hobeto korrika egiten ikusi izan ditut.

- Zure buruarekin lasterketa?

- Hilaren 30ean Euskadiko txapelketan egingo dut korrika Altsasun.

- Aurrerantzean ze asmo duzu?

- Korrika egiten jarraitu nahi nuke. Kanpora irte-teko gogoia ere badaukat.

Peter Stevenson ingelesa izan zen lasterketan garaile. Dena den, adituek bigarren postua lortu zuen Mikel Artetxe bizkaitarraren eta Aitzol Zurriarain lasartearra gaztearen lan ona azpimarratu dute. "Ikuskizuna eskaintzea da gure helburua", zioen eskolako Jon Mikel Mujikak lasterketaren aurkezpen egunean. Eta lortu zuten txirrindulari zaletuen arreta piztea. Horretarako punta-puntan dauden hainbat txirrindulari Andoainera ekartzea lortu zuten: besteak beste eta atzerritarren artean Marc Van Orsouv eta Van Den Alker holandarrek, Rony Poel Voorde belgiarra eta Stevenson ingelesa. Etxekoen artean Jokin Mujikaren, Aitor Garmendiaren eta munduko txapel-dun anoetarren presentzia aipatu behar dira.



ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA



HAURRENTZAKO ESKOLA

Miguel Angel López Abandok eta Jon Mikel Mujikak eman digute 1980. urteaz geroztik lanean ari den txirrindulari eskolaren berri. Herriko eta kanpoko haur eta gazte askok eza-gutu dute eskola, eta arduradunek beti izan dute helburu garbia: txirrindularitzaren bitartez haurra hezi eta jostarazi. "Ez diegu inoiz gure txirrindulariek lortzen dituzten emaitzei lehentasunik eman", esan digu J.M. Mujikak. Ez dute inoiz babesle ofizial baten laguntzarik bilatu ere, gaineratu digu M.A. Lópezek, babes ofizialik izateak emaitzen menpe egon behar izatea eskatzen baitu. Egoera horrek zailtasun ekonomikoak ere eragin izan dizkio batzuetan eskolari. Baina zailtasunak herritarren laguntzaz, eta bereziki eskolako gaztetxoaren gurasoen laguntzaz ordezkatu izan dituzte beti.

Eskolan errepideko txirrindularitza lantzen dute gehienbat, hala ere egin izan dituzte, halaber, ziklo-kros saioak eta pista, eta mendiko txirrindua ere lantzekotan dira. Laguntza izan bitartean ez omen daukate mugarik. Azkenik, txirrindulari zaletu hauek eskola herritar guztiei irekita dagoela ohartarazi digute.

ZIZURKIL

X. TOUR-EKO LEHENENGO EUSKALDUNARI OMENALDIA


MIGUEL INDURAIN ETORRI DA AZKEN BOST URTEOTAN

Autografoak, argazkiak eta bostekoak eskaini zizkieten hilaren hamabian Zizurkilgo Urkamendi elkartera etorritako kirolariek bertan bildutako herritar ugari. Tour-eko lehenengo euskaldunari urtero egiten zaion omenaldi honetan Indurain omentzeaz gain, Abraham Olano munduko txapelduna eta Iñaki Garmendia Eibarko atezain zizurkildarra ere omendu zituzten.

Ehun eta hogeita lagun inguru bildu ziren Tour-eko lehenengo euskalduna omentzeko afarian. Indurain, Olano eta Garmendiaz gain, Alberto Gisasola eta Joseba Obando txirrindulariak ere bertan izan ziren. Lehenengoak Paris-Brest-Paris lasterketa irabazi du eta 1.200 km eta 43 ordu bizikletatik jaitsi gabe egin ditu marka hori lortzeko. Obando berriz, estatutu mailako *mountain bike* txapelduna da. Marino Lejarreta, Jokin Mugika, Txomin Perurena eta Xabier Usabiaga asteasuarra ere gonbidatu zituzten afarira. Afaria alaitzeko, urteroko Xapre eta Totxo trikitalariak eta Peña, Lizaso eta Telleria bertso-lariak izan ziren.

EZ DA TXIRRINDULARITZAKO IZARRIK BILATZEN

"Afariaren helburua ez da txirrindularitzako izarrak omentzea, Tour-ean postu onenean gelditu den euskalduna omentzea baizik" esan digute antolatzaileek. Hala ere, azken urteotan "zortea" izan dutela diote Indurain Tour-eko lehenengo euskalduna eta gainera irabazlea izan delako. Duela hamar urte hasi ziren afaria egiten eta Marino Lejarreta etorri zen lehenengo bost urtetan. Oraingoaldi honetan Lejarretak eman dio saria



Urkamendikoak ezin gustorago

Induraini bost urte segidan lehenengo euskalduna izan delako. Horrezaz gain, aurtengo Tour-eko lehenengo euskalduna izateagatik ere jarri zioten txapela Atarrabiako txirrindulariari. Abraham Olanori ere eman zioten saririk anoetarra eta munduko

txapelduna izateagatik.

Bestalde, urtero herriko kirolari bat omentzen dute afarian eta aurtengoan, Eibarko atezaina den Iñaki Garmendiari afarian bildu ziren kirolariek sinatutako baloi bat eta sari bat eman zioten.

MIGUEL INDURAIN

BANESTO TALDEKO TXIRRINDULARIA; 5. ALDIZ TOUR-EKO IRABAZLEA ETA LEHENENGO EUSKALDUNA; AFARIAN OMENDUA.

- **Zenbat aldiz etorri zara afari bonetara?**

Irabazi ditudan Tour kopuru bezain beste; bost aldiz, alegia.

- **Ze iritzi duzu afariaz eta omenaldiaz?**

Oso ona. Ez naiz afari askotara joaten, hemengora eta Peñak antolatutako afaritara soilik etortzen naiz. Oso giro ona egoten da afarian.

- **Zizurkilen txirrindu zale-tasun handia dagoela diote. Egia al da bori?**

Bai, horrela da. Afari hau egiteaz aparte, esate baterako, jende asko joaten da Tour-a ikustera. Txirrindularitza profesionalaren zein afizionatuaren munduan ere zizurkildar ugari ibiltzen dira.

- **Ze asmo dituzu orain?**

Entrenatzen hasi berri naiz eta urte bukaera arte, entrenatu eta zenbait bidaia egingo ditut. Bestalde, bainbat ekitalditara ere joan behar dut.

ASTEASUKO IKASLEAK 1984-85

GABON EGUN BEZPERA



Makurtuta ezkerretik eskuinera: Xabier Roteta, Josu Otaegi, Dabid Urbietta, Jon Usandizaga, Iker Ormazabal, Joxe Bixente Otaegi, Kike Pintado eta Arkaitz Roteta.

Zutik ezkerretik eskuinera: Aintzane Urkola, Naiara Loinaz, Leire Usabiaga, Joxe Mari Irazu, Andoni Ezkerra, Aitziber Otegi, Arantxa Otegi, Aitziber Urruzola eta Aitzol Txapartegi.

Pello Errota ikastetxeko Amaia Usabiaga eta Josune Eizmendi irakasleen laguntzaz jaso ditugu argazkiko ikasleen izenak. Batzuek ikaste-

txea utzi berri dute oinarrizko ikasketak amaitu ondoren; beste batzuk berriz, bukatzeaz daude. Herri eta ikastetxe guztietan ohikoa da Gabon egun bezperan Olentzerorekin herriko kaleak zeharkatzea eta kantuan batetik bestera ibiltzea. Asteasuko ikasleak Elizmenditik irten ohi dira eta auzo gehientsuenak igaro ohi dituzte herritarrei diru eske txapela luzatuz. Zortzigarren mailakoek ikasketa amaierako bidaia egiteko erabili ohi dute dirua, eta gainerakoek ere urtean zehar ibilaldiren bat eginez aprobetxatu ohi dute Gabonetan jasotako sosak.



Zabala
Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

AURRERA
TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL

LEIRE ASÍN

TXISKOLA TELEBISTA SAIOKO
AURKEZLE LAGUNTZAILEA



Billabonatarra; 21 urte; idazkari ikasketak; zaletasunak: igeriketa, paseatzea eta parranda.

- Nola iritsi zara Txiskola saiora?

- Lagun batek esan zidan telebista saio baterako aurkezle laguntzailea behar zutela. Casting-a eginda zegoen, bala ere frogatu egin nuen eta aukeratu egin ninduten.

- Lehenengo aldia da, ezta?

- Bai, telebistan borrelako esperientziarik izan gabe nengo. Niretzat ametsa izan da txikitatik telebistan azaltzea eta modelo izatea. Sekulako sorpresa izan da hau niretzat.

- Eta hemendik aurrera?

- Saioa amaitu da, eta ez dakit jarraipenik izango duen. Dena den, ni hasi naiz mundu bonetan pixkat bat sartzen. Ikastaroak egin ditut eta baita desfile batzuk ere, izena han eta hemen eman dut. Hemendik aurrera zain egotea tokatzen zait, ea deitzen didaten! Dena oso azkar gertatu da, besteek urtebetean egiten dutena nik hilabete gutxi batzuetan egin dut.

- Gurasoek eta lagunek zer diote?

- Lagunek hasieran ikusi nindutenean sekulako sorpresa hartu zuten. Gurasoek lehen ere esan zidaten modelo ikasketak egitea baino, hobe nuela bestelako ikasketak egitea, baina nik inoiz ez dut amore eman, eta azkenean, gutxien esperonuean, lortu dut lehenengo urratsa ematea.

- Nola ikusi duzu zeure burua telebistan?

- Lehenengo aldiz sekulako sustoa hartu nuen: oso gizona ikusi nuen neure burua, telebistan normala omen da. Eta gainera, horren gona motzakina eta takoiekin ikustean lotsatu ere egin nintzen, baina, tira, beste saio batzuetakoak ere berdintsu ateratzen dira eta... Egia esan, apaingarri lana ere egiten dugu guk borrelako saioetan.

- Zer da ikastea gehien kostatu zaizuna?

- Hitz egitea. Nik badakit euskaraz hitz egiten, baina lagun artean aritzen naiz bakarrik, ez dut euskaraz ikasi, eta obitzaa kostatu egin zait. Gainera, hasieran oso azkar hitz egiten nuen.


- Grabazioak nolakoak izan dira?

- Miramonen egiten genituen. Arratsaldeko laueta hasi eta hamaikak arte. Hala ere, ez zen astunegia izaten, jende jatorraz inguratuta egon naiz.

- Txisterik ikasiko zenuen?

- Bai, asko ikasi ditut, baina oso txarra naiz txisteak konartzan.

PERTSONAIA EZKUTUA



Larraulgo Ana Urbietta Aginalde izan da oraingo honetan gure lehiaketako sariduna. Inoiz baino gutun gehiago jaso ditugu azkenengo deialdi honetan, eta partehartzaile guztiek gainera, erantzun diote zuzen gure galderari. **Abraham Olano txirrindulari anoetarra**, munduko txapeliduna, zen gure argazki zirriborratuaren atzean ezkututzen zen pertsonaia.

Urte berriaren ateetan, egiteko berriak ez ahazteko eta zaharrei jarraitzeko **Billabonako Basajaun liburudendak eskaini dizkigun agenda eta boligrafoa** ez dira batere opari txarrak. Larraulgo Anak berak aitortu digu orain arte ez duela inoiz agendarik erabili, baina aurretantzean, beharbada, erabiltzen hasiko dela. Bestalde, guk uste bezala, pertsonaia ezkutua zein zen asmatzen ez du lan handirik hartu. Ez omen da berez, txirrinduzale amorratua, baina Anak esan bezala: nor ez du, bada, Abraham Olano ezagutzen?



ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 **20140 ANDOAIN**

S T O P LIBURUDENDA

TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelesean, frantsesean,
italieraz...)

Agustin de Leiza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

IKASTAROAK

ZIZURKIL

Gozogintza ikastaroa: astean behin hiru orduz.

Dantza ikastaroa: 6-8 urte bitarteko haurrentzat ostiraletan.

Kartelgintza: Astean behin.

Kultur Etxean izango dira ikastaroak eta baita izenematea ere.

Ilustrazio tailerra: Astean behin Patxi Otaegiren zuzendaritzapean.

Bertsolaritza: haurrentzako saioa asteazkenero.

Ikastaroak eta izenematea Iriarte Etxean.

LEHIAKETAK

La Salle-Berrozpe ikastetxeak antolatutako **argazki lehiaketa**. Gaia: "Andoingo txokoak".

DUDARIK GABEKO ZALANTZAK ARGITZEN

Ez omen gara ondo ari. Bideseinaleak bi hizkuntzetan egon behar omen dute. Nonbait batzuk -Andoingo EAKoek barne- uste dute erdaldunak ez direla oso azkarrak eta DONOSTIA edo/eta GAS-TEIZ izenekin errepideetan galdurik ibiliko direla SAN SEBASTIAN edo/eta VI-TORIA herrien bila. Horrela al da?

Bestetik edukazioak aginduta esker-
rak eman beharrean gaude Andoingo
EAKoei. Itxura denez oso azkarrak gara
EHEkideok. Edozein gauza egiten dugula
ere, isladatzen dugunaz at helburu sako-
nagoak omen ditugu beti. Zinez diotsue-
gu, etzaitzte hainbeste nekatu, estima-
tzen dugun arren, ez da horrenbesterako.

Badirudi elkarrekin egongo gara
eskutitz hau kaleratu aurretik, eta beraz,
zuen "zalantza" guztiak gusto handiz ar-
gitzen saiatuko gara. Hala ere, aukerari
muzin egin gabe, zenbait gaiei buruz ari-
tzea gustatuko litzaiguke.

Badago bereziki arduratzen gaituen
arazo bat. Urteak pasa diren arren, eus-
kaldunok oraindik ere halako konplexu
faltso batekin bizi gara. Edozein naziora
joan ezker hizkuntzarena izaten da gain-
ditu behar den lehenengo hesia. Hemen
berriaz, bertakook gaztelera edo frantse-
sa, gureak ez diren hizkuntzak, ikastera
beharturik gaude txikitatik. Gainera le-
hen hizkuntzat hartzen badugu EUS-
KARA eta, arrazoi ezberdinengatik, hiz-
kuntza arrotza -gaztelera edo frantsesa-
ez badugu ondo menperatzen baztertur-
tik aurkituko gara gure etxean, herrian,
gizartean... Hau gutxi balitz, bidegabe-
keria hau salatzen badugu, mehatxutzat

ERAKUSKETA

BILLABONA

Abenduak 23-urtarrilak 27: Enri-
que Velazquezen **pintura erakusketa**
Gurea zinema aretoan.

MUSIKA

ASTEASU

**Urtarrilak 1: Oskarbi abesbatza-
ren** saioa San Pedro elizan eguerdiko
12.00etan.

BESTE

BILLABONA

**Abenduak 29-30-31: Amnistiaren
Aldeko Batzordeak** Errebote plazan
egingo duen akanpada eta baraualdira dei-
tzen ditu herritarrak.

ZINEMA

GUREA ZINEMA

BILLABONA

Abenduak 30-31-1:

"Homicidio"

Urtarrilak 6-7-8:

"Asesinos"

Urtarrilak 13-14-15:

"Día de la bestia"

Urtarrilak 20-21-22:

"Demonio vestido de azul"

Urtarrilak 27-28-29:

"Puentes de Madison"

GIPUZKOAKO BITXIGILE ELKARTEA

Gutun honen bitartez gure haserre
eta ondoeza adierazi nahi dugu gure
elkarteko kide den Andoingo Irulegi
bitxidendaren aurka EROSKI aldizkarian
irailean eta urrian egin diren salaketa la-
tzak direla eta. Irulegi jaunak gure babes
eta laguntza osoa dauka, hala nola Gi-
puzkoako Merkatal Federazioarena, gure
elkartea bertako partaite delarik.


EROSKI aldizkariko artikulua oro har
merkataritzaren aurka, eta bereziki bitxi-
denden aurka, egindako salaketa da.

Gure ustez gure elkartekideari ez zaio
axolagabekeria leporatzen, baizik eta
bere jokabidea delituzat jotzen da. Eta
horren salaketa larriek ez dituzte aldizka-
riko arduradunak, zuhurtasunez besterik
ez bada, salaketak, argitaratu aurretik, au-
rre ematera eta kontrastatzera eragin.
Bestalde, salaketak guztiz frogaezinak
dira eta bitxiei buruzko ezazagupen han-
dia erakusten dute.

Oso kezkatzen gaitu EROSKI aldizka-
ri merkatal denda tradizionalekiko har-
tu duen jarrera: aukerarik txikienaz ba-
liatzen da merkataritxiaren aurka egite-
ko. Behin eta berriaz ematen dio kontsu-
mitzaileari aditzera horrelako dendetan
erosteak ekarri ditzakeen arriskuak, eta
horren ordean denda handietan erosteak
dakartzen "balizko" abantailak gorai-
patzen ditu. Jokabide horri MANIPULA-
ZIOA esaten zaio.

Aipaturiko "gutunen" argitalpenaren
arrazoiei buruzko argibideak exijitzen di-
tugu, izan ere, eta gure ustez, erreality-
tearen isla baino gehiago, kanpaina ba-
ten emaitza dira.


Fco. Javier Aguilar
Gipuzkoako Bitxigile, Zilargin
eta Erlojulari Elkartea



ZIZURKIL



LARRAUL



ANDOAIN

Apirila

1 2 3 4 5 6 7
8 9 10 11 12 13 14
 15 16 17 18 19 20 21
 22 23 24 25 26 27 28
 29 30

Urria

1 2 3 4 5 6
 7 8 9 10 11 12 13
 14 15 16 17 18 19 20
 21 22 23 24 25 26 27
 28 29 30 31

Maiatza

1 2 3 4 5
 6 7 8 9 10 11 12
 13 14 15 16 17 18 19
 20 21 22 23 24 25 26
 27 28 29 30 31

Azaroa

1 2 3
 4 5 6 7 8 9 10
 11 12 13 14 15 16 17
 18 19 20 21 22 23 24
 25 26 27 28 29 30

Ekaina

1 2
 3 4 5 6 7 8 9
 10 11 12 13 14 15 16
 17 18 19 20 21 22 23
 24 25 26 27 28 29 30


Abendua

1
 2 3 4 5 6 7 8
 9 10 11 12 13 14 15
 16 17 18 19 20 21 22
 23 24 25 26 27 28 29





Dr. Huizi kalea 15, 1-esk.
 20140 ANDOAIN (GIPUZKOA)
 ☎ 30 07 32 — Fax: 30 07 31

ALLURRALDE UDAL KIROLDEGIA



ANDOAIN

Tfnoa.: 30.01.47



1996eko ORDUTEGIA

NEGUA:

- ASTELEHENETIK OSTIRALERA
Igeriketa : 7.00 - 13.00 eta 15 - 21.00
Kiroldegia: 7.00 - 13.00 eta 15.00 - 22.15
- LARUNBATAK: 9.00 - 13.00 eta 16.00 - 20.00
- IGANDEAK: 9.00 - 13.00

UDA (uztaila eta abuztua):

- ASTELEHENETIK OSTIRALERA: 7.00 - 13.00 eta 16.00 - 21.00
- LARUNBATAK: 9.00 - 13.00 eta 16.00 - 20.00
- IGANDE ETA JAIEGUNAK: Itxita


KIROL EKINTZAK

IKASTAROAK:

Mantenimenduko soinketa / Fitness / Pretakuntza fisiko / Aerobic / Igeriketa (ikastea) / Aquagim.

MANKOMUNATUTAKO ZERBITZUAK

Kirol instalazioetako abonatuak BURUNTZALDEKO Udaleko edozein kirol instalazio erabil dezakete, lekuan lekuko ordutegia eta arauak errespetatuz.



1996 URTERAKO TASAK

Abonoak	Seihilabetekoa	Urtekoa
•FAMILIARRA	10.800	19.000
•BANAKAKOA	7.100	12.000
•ADIN TXIKIKOA (18 urtez beherakoa)	5.400	9.000
•LANGABETUA	5.400	9.000
•PENTSIONISTA	5.400	9.000

SARRERA

18 urtetik gorakoak	550
18 urtetik beherakoak	250

ORDU- ERRESERBAKO TARIFAK

Jokalekua	2.300
Jokalekuaren 1/3a	850
Jokalekuaren abonatu ez direnentzako	4.400
Squasha	500

GORPUTZ ZAINKETAKO ARETOA

Sauna-hidromasaiako saio 1	375
Sauna-hidromasaiako 10 saio	3.000
Solairum-eko saio 1 U.V.A	475
Solairumeko 10 saio	3.800
Masaia	1.400

* Bazkide ez denak sarrera ordaindu beharko du

IKASTAROAK

3 egun astean:	Igeriketa	Bestelako ekintzak
IKASTURTE OSOA	19.600	16.275
IKASTURTE ERDIA	11.500	9.345
HILEKO IKASTAROAK	3.300	2.750
2 egun astean:		
IKASTURTE OSOA	15.000	12.200
IKASTURTE ERDIA	9.020	7.200
HILEKO IKASTAROAK	2.300	2.100